

# NORA GOAZ?

Gure enda edo arraza galtzera doa.

Naiz-ta askok alan uste, gure arrazaren prolema ez da alboko endakin naasten doala, eta orregaitixek galtzen. Naaste ori berezkoa da, ukaeziña dan neurri berean. Gaiñera, gaurko munduaren billakaera edo eboluzioan, zentzudun batek ezin leike kontrakorik defendidu, egunean eztagolako "ghetto" edo mundu aparte bat egiterik. Idigiak izan bear gara.

Ta bein da betirako ondo buruan artu daigun: Euskaldunak izango bagara, ez da izango odola olakoa edo alakoa dogulako, euskeraz berba egingo dogulako baiño.

Diñotanez, gure errazaren galbidea beste eskifia batetik jatorku. Ta ez gara konturetan. Eta-ta konturetan bagara, ez deusagu erremediorik iminten. Ta azkeneko au txarrago da. Txarragoa ta errudunagoa.



## Zergaitik goaz galtzen gure arrazea

Gure errietan asko edaten da. Larregi. Txikiteoak galdtu bear gaitu. Aldizkarietan irakurri dozuez seguru txikiteoaren zerbakiak-eta, ez noa, ba, atzera orreek ekartera. Neiko dot esatea, gaurkoz, zerbakiok biribillak eta luzeak direla.

Nik, iflor banintz ortarako, dei bat egingo neuskioe euskalduneri: Jainkoarren, gure erria ezer maite badogu, itxi daiogula edateari, gorrotatu daigun txikiteo usantza mardikatu ori!

Ba dakit ez dala erreza: te-

lebista, irratia, periodikua, dana dago gure kontra ta alkoolaren alde bere propagandan. Soberano dala, Veterano dala! Orretara, edaria, agotik baiño ariñago, begietatik sartzen jaku. Lenengo buruan, gogoan, egiten jaku egarria ta gurraria, ta geroago gorputzean! Orren aurka egotea ez da olgetakoa.

Mediku batek zer esango ete leuskigu alkoolaz?

Alkoola (ardaua, kofnaka, eta beste alkooldun edozein edaria) gorputzarentzako txarra da. Batez be nerbioentza-

ko: auldu egiten ditu. Ta ausi be bai, sarri.

Orain bi urte, Donosti-ko Sikiatria-ra euneko 75 joan ziran alkoolagaitik.

Kamiñoetako akzidentetan, geienak alkoolaren erruz izaten dira. Urte baten, Frantzi-an, eunetik 75 izan ziran orregaitik. Bierreko akzidentetan be bardin. Ta ez mozortuta dagozalako, ez. Alkoola edan ostean txarrago ikusten dalako baiño. Eunetik 4 bider arrisku geiago ei dagoz edan ostean. (Bi ikusi bearrean bat bera be ez da ondoegi ikusten, antza).

Batzuen ustez, edariak indarra emoten ei dau. Ez da egia. Momentu bateko euforia bai, baiña ez besterik. Ta, egia esan, medikuek esaten dabe, alkoolak indarra kendu ta makaldu egiten dabela apurka-apurka.

Ardaua, apur bat, ona da jatorduetan. Bierrean ibilli ta 20 urtetik 50-ra dituanarentzat litro-erdi da neiko. Beste guztiak gitxiago bear dabe.

Goazen bidetik, arima, gizontasuna, ta euskalduntasuna kaskartzen ari gara.

joan-mari torrealday.

## Alkoolak dauko erru guztia

### ESKATUTEKO TXARTELA:

ANAITASUNA aldizkaria artu gura neuke:

Izen-abizenak .....

Bizilekua .....

Errria..... Prozintzia.....

(Laugarren orritik)

pesetan saltzen dau toneladea (Urre zatiak edo naastau ete deutsoz ba?) Cortes'tik Madrillera eroatea, toneladako 500 peseta. Madrilleko almanenistak ba, 2.800 pesetan erosten dau alpalpa toneladea. Azkenengo onek be zeozer bear dau antza, ta onek 3.100 pesetan saltzen dau toneladea.

Eta zer esango dogu oraiñ; nekazaritzak gitxi emoten dauala? Ez dakit nik asko ala gitxi emoten dauan; baiña emoten dauan erdia baiño geiago beste batzuentzat izaten dala ikusi dogu. Eta geiago zer? Ba lapurketa lotsabako onen ondorea, penagarria benetan, egunetik egunera geitzen dioan nekazaritzaren "exodoa" dala.

J. L. Belaustegui.